

4. ekar ilustrazio eta ipuin lehjaketa

TORI ZAHARRA, EKARRI BERRIA

Joxean Urbietta

Gurasoen autoko atea ixteko denborarik hartu gabe, aitona-amonen baserrira abiatu zen Mattin. Korrika eta arnasestuka sartu zen sukaldean.

–Aitona, amona, bi albiste eman behar dizkizuet. Lehenengoa...

–Arratsalde on lehendabizi, Mattin –moztu zion aitonak.

–Barkatu. Arratsalde on, aitona. Arratsalde on, amona. Bi albiste eman behar dizkizuet. Lehenengoa, duela zazpi minutu uda hasi dela. Eta bigarrena...

Hitz egiten jarraitu aurretik, sakon hartu zuen arnasa.

–Bigarrena askoz ere garrantzitsuagoa da: bazkaltzen ari nintzela, nire lehenbiziko hortza erori zait.

–Ez da egia izango? Zatoz hona eta ireki aho hori –eskatu zion amonak.

Mattinek, krokodiloen antzera ahoa zabalduz, irribarrerik alaiena eskaini zien.

–Ene bada! A zer-nolako zuloa gelditu zaizun. Afaritako espagetiak hortik zurrupatu ahal izango dituzu –esan zion txantxa artean aitonak.

–Gaur gauean, etxera itzultzean, hortza zapi batean bildu eta Perez sagutxoari jarriko diot almoadapean –jakinarazi zien Mattinek.

–Perez sagutxoari? Kalekume halakoa. Galdetu zure amari zer egiten zuen hortz bat erortzen zitzaion bakoitzean.

Sukaldera iritsi berria zen Mattinen ama, eta halaxe esan zuen:

–Herri honetako ohitura da hurrei eroritako hortzak San Joan gaueko sutara botatzea.

–Eta hortza sutara botatzeko unean magiazko hitz batzuk esan behar dira –jarraitu zuen aitonak.

–Horrela, hortz berria azkarrago ateratzen da –amaitu zuen amonak.

Oraindik gogoan zituen Mattinen amak magiazko hitz haiek: “Tori zaharra eta ekarri berria.” Mattinek, ordea, kopetilun eta triste samar, sagutxoaren oparia nahi zuela aitortu zuen.

–Entzun, txikito –amona zen goxo hitz egin ziona–. Zure lehen hortza San Joan gaueko sutara botako duzu, eta, berria ateratzen hasten zaizunean, neuk egingo dizut opari eder bat. Saguarena bezain ona. Hobe ez bada.

4. ekar ilustrazio eta ipuin lehjaketa

Pentsakor gelditu zen mutikoa. *“Hortz bat lortu behar dut nola edo hala. Neurea Perez sagutxoari ipiniko diot. Eta bestea, inor konturatu gabe, sutara botako dut”*.

–Noiz pizten da San Joan sua? –galdetu zuen kezkatu mutikoak.

–Zorteko zara. Bi lo eginda, etzi – jakinarazi zion aitonak.

–Konforme, orduan –Mattinek ez zuen gehiegi pentsatu behar izan –. Sutara botako dut hortza, hitz magikoak esaten ditudan bitartean. Eta orain, zuen baimenarekin, ukuilura noa animaliak bisitatzera.

Ondotxo zekien Mattinek bilaketa lanak non hasi.

Baserriko asto zaharrari eroritako hortza aurkitu zuen belar artean.

Patrikan ezkutatu zuen altxor preziatua.

Bururatutako plana primeran ateratzen ari zitzaion.

“Bi opari izango ditut. Sagutxoarena bata, eta amonak eginikoa bestea”.

Gau hartan, etxera itzulita, berari eroritako hortza zapitxo batean bildu eta almodapean gorde zuen, inori ezer esan gabe.

Hurrengo goizean, ordea, ez zuen ez oparirik, ez dirurik topatu.

Nonbait, hortza sutara botako zuen albistea iritsi zitzaion sagutxo hortz-biltzaileari.

“Oso lanpetuta ibiliko da. Gaur gauean berriro probatu beharko dut”.

Baina hurrengo goizean, berdin. Ez oparirik, ez ezer.

San Joan bezperako arratsaldean, autoa hartu eta aitona-amonen herrixkara abiatu ziren Mattin eta gurasoak.

Aitonak egin zien ongietorria.

–Unerik egokienean iritsi zarete. Egur zahar hauek plazara eramateko laguntza beharko dut.

–Lasai, aitona –esan zion Mattinek–, bion artean eramango ditugu. San Joan suan erretzeko al dira?

–Jakina. Ekarki al duzu hortza? –galdetu zion aitonak ahapeka.

–Bai –erantzun zion Mattinek, galtzetako patrika adieraziz eta aitonaaren gisan hitzak xuxurlatuz–. Hementxe daukat, zilarrezko paperean ondo-ondo bilduta.

Gau magiko hartan, herriko gazteek San Joan dantza egin zuten suaren inguruan. Ondoren haur eta gaztetxoek saltoak eta jauziak egin zituzten su gainetik. Eta, azkenik, beste zazpi haurrekin batera, sutara bota zuen Mattinek patrikan gordetako hortza.

“Tori zaharra eta ekarki berria” oihukatu zuten denek batera.

Asto zaharraren hortzak sutan bukatu zuen.

4. **ekar ilustrazio** eta **ipuin lehjaketa**

Gau hartan bertan, lo zegoen bitartean, hortz berria ateratzen hasi zitzaion Mattini. Goizean, esnatzerakoan, zer edo zer arraroa nabaritu zuen ahoan. Salto batez ohetik jaiki eta komunera joan zen. Ispilu aurrean jarri eta, parez pare zuen panorama ikusterakoan, ikaratu egin zen.
“Ai ama! Zer gertatu da?”.
Hortz ikaragarri batek betetzen zuen bere hortz txikiak utzitako zuloa.
“Astoaren hortza da ateratzen hasi zaidana”.

Lotsa-lotsa eginda, erabat damututa, hortzaren erruz kasik hitz egin ezinik, egindako tranpa aitortu zien gurasoei.
Dentistak konpondu behar izan zuen, goiz hartan bertan eta denborarik galdu gabe, Mattinen aldrebeskeria.
Bazkalondoan, autoa hartu eta aitona-amonen herrixkara abiatu ziren, gertatutakoa kontatzera. Serio, oso serio eta kopetilun entzun zituen aitona mutikoaren hitzak.

Baina bat-batean, algaraka hasi eta aspaldian ez bezala egin zuen barre, malko eta guzti, eten gabean.
Amonak, bera ere irribarrez, agindutako oparia egingo ziola jakinarazi zion Mattini.
Orduan, erabat itzali gabeko San Joan sutako errautsetara bota zuen mutikoak bere benetak hortza.

Egun batzuk geroago, agindutako oparia eman zioten aitona-amonak biloba bihurri bezain maitekorrari.
–Eskerrik asko, amona. Eskerrik asko aitona. Ez dakit merezi dudana –benetan damututa zegoen Mattin–. Nire lehen ordularia!
–Gustatzen al zaizu barruko marraskia? –galdetu zion amonak.
–Ez naiz konturatu ere egin! Asto baten marraskia du erdi-erdian.
–Honela –argitu zion aitona gaizto aurpegia jarri nahi eta irribarrea ezkutatu ezinik–, ze ordu den jakin nahi duzun bakoitzean, astoa ikusi eta hortzarekin egindako barrabaskeria oroitu duzu.
Hura entzun eta aitonaaren besoetara salto egin zuen mutikoak. Eta, beste askotan bezala, luze egon ziren bata besteari kilimak egiten.